

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 33. atala

DATA: 2025/02/21

## GUREAN

### PLANETA DANTZAN

Arteari eta ingurumenari buruzko sentsibilizazio programa honetan oso gustura hartzen dute parte gure DBHko 1.mailako ikasleek. Malandain Ballet Biarritzek, Donostiako Cristina Enea Fundazioak eta Iruñeko Udaleko Proiektu Estrategikoen, Mugikortasunaren eta Garapen Iraunkorraren Arloak bosgarren urtez jarraian garatzen dute Planeta Dantzan ingurumen-sentsibilizazioko programa koreografikoa. Gazteek klima aldaketari buruz ikasten dute ikuspegi artistiko eta zientifikoak uztartzen dituen hezkuntza programa berritzaile baten bidez, Thierry Malandainen Noé-ren lan batean oinarrituta.



## GURE INGURUAN

### KALDEREROAK

**NON: TOLOSA**  
**NOIZ: 2025-02-22**


10:30. Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartsa kalez kale, Tolosako dultzaineroekin.

11:45. Aiz Orratz txarangaren irteera Rondilla kaletik Trianguloa plazaraino.

12:30. Haurrentzako Jaialdia, Aiz Orratz elkarteak antolatuta, Leidor aretoan.

19:00. Kaldereroen konpartsaren kalejira, musika eskolako ikasleekin batera, Urdiña Txiki elkarteak antolatuta, Plaza Zaharrean.

23:30. Incansables txaranga, kalez kale.



### LIILATON

**NON: DONOSTIA**  
**NOIZ: OTSAILAK 23**



Emakumeak ahalduntzea bilatzen duen ekitaldia da kirolaren bitartez, osasuna, inklusioa eta talde lana sustatuz. Txirrindulari hasiberrietatik hasi eta esperientziadun kirolarietaraino, handbike kategoriaraino, guztientzako lekua dago.

Animatu «LEONOR, ZUREGATIK KORRIKA. EZTA BAT GUTXIAGO ERE!» leloarekin korrika egitera!